



EUDEL, EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA-ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS:

ELoGE: gobernantzaren bikaintasunaren Europako zigilua, euskal udalen gobernantzararen




ALMENDRO PEÑA
moro.a@eudel.eus
686102279

 **Jarduera:** EUDELeK udalen interesak ordezkatzen ditu eta udal-autonomia defendatzen du beste erakundeen aurrean. Sareko lana, ekintza koordinatuak eta jardunbide egokiak sustatzen ditu. Joeren eta abangoardien behatoki den aldetik, EUDEL CMREko kide da eta Europako Kontseiluarekin (CoE) lankidetzan aritzen da.

 **Sektorea:** Onura publikoko elkarte

 **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 19

 **Lokalizazioa:** Ercilla Kalea, nº 13, Bajo, 48009 , Bilbao - Bilbo, Bizkaia

EUSKADI mailako berrikuntza INKREMENTALA**Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Epe luzeko prozesuaren berrikuntzan oinarritutako kalitatezko gobernantza lortu nahi duen kasua delako. Erakunde publikoen gardentasunean eta etengabeko hobekuntzan oinarritzen da: euskal udalerrien errealtatera egokitutako gobernu onerako Europako metodologia batetik abiatzen da. Koordinazio politiko-tekniko onari eta udalerrien arteko zeharkako lankidetzari esker, etengabeko hobekuntza ebaluatzen eta sustatzeko sistema bat ezarri da (iraunkortasuna, efizientzia, gardentasuna, parte-hartzea...).

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

EUDELek tokiko gobernuari onena asmatu nahi du, eta, xede horri jarrikiz, tokiko gobernantza onaren arloan berrikuntzak egiten ditu, Europako kalitatearen estandarren bidez, gardentasunean, iraunkortasunean eta etengabeko hobekuntzan oinarrituta. Eredu diren esperientziak bilatzen ditu, udal gehiagorentzat eredarri diren jardunbide egokiak; tokiko lidergo politikoa duten gero eta erakunde gehiago erakarri nahi ditu, borondatez.

Tokiko Gobernantzaren Bikaintasunaren Europako Zigilua (ELOGE) Europako Kontseiluak bultzatutako aintzatespen-sistema bat da, tokiko gobernuen baterako ekintza udal-kudeaketa eraginkor eta efiziente baterantz bideratzeko, denboran zehar jarraitutasuna izan dezan. Zigiluak gobernantzaren etengabeko hobekuntza bultzatzen du, zerbitzu publikoen kalitatean, herritarren parte-hartzean eta herritarren igurikimenak asetzen dituzten politiketan eragina izan dezan.

Zigilua ez da helburu bat, baizik eta tokiko gobernuak bikaintasunerantzko etengabeko hobekuntzarekin duten konpromiso gorena sustatzeko bitartekoa. Zigilua lortzeko lan metodologiak (bat datorrena gardentasun, parte-hartze, iraunkortasun eta plangintzaren arloko Europako politikekin) Euskadiko udalei aukera ematen die modu berritzailean lan egiteko: barne-mailan, autoebaluatzen, eta kanpo-mailan, beste tokiko gobernu batzuekin alderatzen. Betiere euren gobernuak hobetzeari eta gizartearen erronkei erantzuteari begira.

Ebaluazioan (adierazleen bidez), gobernantza onaren 12 printzipioetan oinarrituta dauden eta GIHeekin bat datozen ekintza iraunkorrak identifikatzen dira. Kontraste- eta kontrol-mekanismo gisa funtzionatzen duen Peer Review edo "pareen arteko alderaketa" metodologiari jarraituz (edizio honetan parte hartzen duten udalak euren artean alderatzen dira), sormena eta berrikuntza sustatzen dira. Tresna bilakatu ahala, prozesuan sortzen diren proposamen berriak biltzen dira.

Egindako ondorengo edizioek (2017, 2018 eta 2020) emaitzak eman dituzte, eta gero eta gehiago dira prozesuan borondatez inplikatu diren udalak; horrek erakusten du proiektua bideragarria eta aplikagarria dela. Zigiluaren aintzatespenetik haratago, ELOGEn parte hartzeak bikaintasunerantz etengabe hobetzeko erakundeak berrikuntzarekin duen konpromisorik gorenera erakusten du.

Bere esparruan bertan errepikatzen ahalmen handia duen kasua da: EAEko udal guztiek har dezakete parte. Tresna hori Europako Kontseiluak bermatu du, eta hainbat tamaina eta errealtatetako udalerrietan da baliagarria.

Aurrekariak

Ekimen horrek balizko krisialdian Tokiko Gobernantza sendotzeko beharri erantzuten dio eta herritarrek euren hurbileko erakundeetan, udaletan, duten konfiantzari eusten dio. EUDELeko alkateek erabakitzen dute gobernu onaren eta herritarrei kontuak ematearen aldeko ekimenari ekitea. EUDEL etika- eta gardentasun-proiektuak lantzen hasten da: euskal udalek egin zuten estatu-mailako lehenengo ereduak 2013an eta jarraian EUDEL sortu zen, udal-gardentasunaren aldeko udalen sarea.

Erronka

EUDELek tokiko gobernuak bikaintasunerantzko etengabeko hobekuntzarekin duten konpromisorik handiena sustatu nahi du, Europako Kontseiluaren "ELOGE" zigilua lortuta (governantza publikoari buruzko Europako kalitate-estandar gorena), bat etorri tokiko gobernuak indartzeko xedearekin. Ondorengo edizioen bitartez, gero eta udal gehiagoren inplikazioa lortu nahi du, gobernu onaren jardunbide egokiak udalari guztietara hedatu daitezkeen. Horren guztiaren xedea da tokiko erakundeek haiei ere eragiten dieten erronka sozial eta ekonomikoak hobeto erantzutea, batik bat COVID-19aren garai honetan.

Ekintzak

Honako fase hauek ditu metodologia-prozesuak:

- 2017: Europako metodologia euskal testuingurura egokitzeko fase pilotua. Europako adierazleak euskal estandarera egokitzea EUDELI esker (EAEen egiaztatutako eskualde plataforma, udalerritan Europako zigilua ezartzeko).

- EUDELek CoEren akreditazioa lortzen du, estatuko lehen udalerrria izanik, Euskadira egokitutako Europako metodologia garatzeko.
- Autoebaluzioa: udalek autoebaluzioa egiten dute Benchmark adierazleen tresnaren bidez, euren egoera zein den ezagutzeko gobernantza onaren 12 printzipioari dagokionez.
- Herritarrei eta hautetsiei inkestak, udalak egindako autoebaluzioaren emaitzak kontrastatzeko.
- Udalerrien arteko alderaketa: lankidetzak eta emaitzak, tresnak, esperientziak eta tokiko jardunbide egokiak bateratzeko.

- 2017: Europako tresna egokitzea eta ELoGE zigiluaren lehenengo edizioa Euskadin.
- 2018: ELoGE zigiluaren bigarren edizioa Euskadin.
- 2019: hobekuntza-planean oinarritutako tresna eguneratzea, adierazle berriak egokitzeko.
- 2020: ELoGE zigiluaren hirugarren edizioa, udal gehiago sartzeara eta aurreko edizioetako udalek zigilua berritzea. Zigilua berritu egin behar da berare eman eta bi urtera.

Lortutako emaitzak

Orain arteko lortutako emaitzak:

- Parte hartzen duten udalek autoebaluazio fidagarria eta gobernu onaren Europako estandarrekin bat datorrena lortzen dute.
- Hiru edizioetan, 16 euskal udalerrik aplikatu dute metodologia eta egin dute autoebaluazioa. Horietatik 8k Europako zigilua lortu dute.
- Esperientzien/jardunbide egokien bankua
- Tokiko gobernu bakoitzerako hobekuntza-planak
- Udalerrien arteko konparazio-saioak

Etorkizunean espero diren emaitzak:

- Hurrengo edizioetan parte-hartzaile berriak izatea
- Jardunbide egokiak trukitzea eta beste udalerrri batzuetan aplikatzea.
- Tresna eta emaitzak COVID-19aren erronken arabera egokitzea.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Ondasun fisikoak.

Aukera arloak:

- 1 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa

Alma Moro Peña (komunikazioko arduraduna)
 "Prozesuan garrantzitsuena da jardunbide egokien eta etengabeko hobekuntzaren bidezko berrikuntza; pandemia osteko gizartea berreskuratzeko eta eraldatzeko egungo erronkari erantzuten dio: tokiko erakundeek gizartearen erritmoaren arabera eboluzionatu behar dute, haren beharrei hobeto erantzuteko."

Ane Angulo Lazpita (governantzako teknikaria)

"Gakoetako bat hainbat udalek esparru berean parte hartu ahal izatea izan da, gobernantza onari begira. Udal bakoitza bere egunerokotasunean aritzen da, eta proiektu honek aukera ematen die une batez egoera horretatik ateratzeko, horrela elkarren artean alderatu eta hobetu ahal izateko, elkarrengandik ikasiz."

Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★☆☆★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★☆☆★

Efizientzia emaitzetan: ★★☆☆★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★☆☆★

Aintzatespena: ★☆☆★★